DIGITALIZAZIOA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Fp EUSKADI LANBIDE HEZIKETA

DIGITALIZAZIOA

# ERABAKIEN GARRANTZIA

# KONTUTAN IZAN BEHARREKO PUNTUAK

1. Dependentzia teknologikoa.
2. Erabakien errebersibilitatea.
3. Datuen kontrola eta segurtasuna.
4. Sistemaren eskalagarritasun falta.



# DEPENDENTZIA TEKNOLOGIKOA

## Zer da?

- **Sistema digital batek kanpoko hornitzaile baten menpe egon behar duen neurrian neurtzen da**.
- Zerbitzu, software edo hardware bat erabiltzeak **konpainia edo teknologia jakin baten esku uzten gaitu**.
- Zenbat eta dependentzia handiagoa, orduan eta **gutxiago kontrolatzen dugu gure prozesua.**



# ERABAKIEN ERREBERSIBILITATEA

## Zer da?

- Hartutako erabaki bat **itzuli edo desegin daitekeen aztertzea**.
- Teknologia aukeratzean, **etorkizunean migratzea posible den edo ez jakin behar da**.
- Itxiak diren sistemek **lock-in efektua sortzen dute** → Migratzeko **kostu altua edo ezintasuna**.




NONDIK ATERAKO ZARA?

# DATUEN KONTROLA ETA SEGURTASUNA

## Zer da?

- **Nor dago zure datuen jabe?**
- **Nork kontrolatzen du nola erabiltzen diren?**
- Datu pertsonalak eta enpresako informazioa **ezin dira edozein lekutan utzi**.



# SISTEMAREN ESKALAGARRITASUN FALTA

**Zer da?**

- Hasieran ondo funtzionatzen duen sistema bat **beste ikastetxe edo enpresa batera erraz heda daiteke?**
- **Hedatzeko kostuak handiak al dira?**
- **Sistemak hazteko aukera ematen du?**



# LABURPENA ETA HURRENGO PAUSOA

Lau faktore hauek dira digitalizazio erabakietan kontuan hartu behar diren elementu garrantzitsuak:

| Kontzeptua | Galdetu beharreko galderak |
|---|---|
| Dependentzia teknologikoa | 🏢 Norena da sistemaren kontrola? Hornitzailearen menpe al gaude? |
| Erabakien errebersibilitatea | 🔄 Erabakia buelta daiteke? Teknologiaz aldatzea posible da? |
| Datuen kontrola eta segurtasuna | 🔐 Nork gordetzen ditu gure datuak? Seguru al da? |
| Sistemaren eskalagarritasuna | 📈 Beste ikastetxeetara heda daiteke? Kostu gehigarriak daude? |

# ANALOGIA: “PIZZA ZERBITZU MODUAN”

| Eredua | Analogiarekin konparazioa | Kontrol-maila |
|---|---|---|
| **Etxean pizza egitea** | Osagai guztiak zuk erosten dituzu eta zuk prestatzen duzu. | **Independentzia osoa**, baina ezagutza eta lana behar dira. |
| **Pizza-ogia erosi eta zuk prestatutako pizza** | Pizza-ogi bat erosi, zuk gehitu osagaiak eta labera sartu. | **Kontrol handia**, baina pizza-ogia beste norbaitek egin du. |
| **Pizza-izoztua labean sartzeko prest** | Pizza-izoztua erosi eta zuk berotu. | **Kontrol ertaina**, osagaien hautaketa mugatua. |
| **Pizzak banatzen dituen zerbitzua** | Norbaitek zuk eskatutako pizza egiten dizu eta etxera ekartzen dizu. | Erraza eta azkarra, baina **ez duzu ia ezer kontrolatzen**. |
| **Jatetxean jatea** | Beste norbaitek dena erabakitzen du eta zuk soilik zerbitzua kontsumitzen duzu. | **Menpekotasun osoa** → Zuk ez duzu ezer kontrolatzen. |

# Zer nahi dugu? Erraztasuna edo kontrola?

## Pizza-as-a-Service & Hodeiko oinarrizko kontzeptuak



| | Etxean egina | Hartu eta labean (take & bake) | Pizza taxi | Pizzeria |
|---|---|---|---|---|
| Mahaia eta mahai tresnak | | | Zu arduratzen zara | |
| Edariak | | Zu arduratzen zara | | |
| Elektrizitate/gasa | | | | |
| Labea | Zu arduratzen zara | | | Saltzaileak Zerbitzuak Kanpoan erosia |
| Gazta | | | Saltzaileak Zerbitzuak Kanpoan erosia | |
| Gaineko osagaiak | | Saltzaileak Zerbitzuak Kanpoan erosia | | |
| Tomate-saltsa | | | | |
| Pizza-ogia | | | | |
| | On premise | Infrastructure as a service | Platform as a service | Software as a service |



# IKASTETXEEN DIGITALIZAZIOAREN AZTERKETA

Tknikak ikastetxeen digitalizazioa bultzatzeko ondorengo ereduaren alde egiten du:

- Sistema modularra eta software librea.
- Datuen kontrol osoa ikastetxearen esku.
- Hodeiean edo lokalean instalatu daiteken plataforma bat.
- Beste ikastetxeetara hedagarria.
- Eskalagarritasuna eta ikastetxeentzat kostu baxuak.



# ALTERNATIBA: SOFTWARE ITXI ETA GARAPEN ESPEZIFIKOA (CUSTOM)

- Software pribatuak erabili.
- Datuak hornitzailearen menpe daude.
- Migrazioa zaila da → Beste sistema batera pasatzeko traba handiak daude.
- Mantenu eta lizentzia gastuak handiak izan daitezke.
- Ezagutza kanpoan dago.



# ZEIN DA BIDERAGARRIENA?

- **Menpekotasun teknologikoa** zenbat eta txikiagoa, orduan eta aukera gehiago izango dituzu.
- **Errebersibilitatea** estrategikoki kontuan hartu behar da → Erabaki batzuk atzera bueltarik ez dute.
- **Eskalagarritasuna** ezinbestekoa da → Ezartzeko erraztasuna faktore garrantzitsua da.



# GALDERAK ETA HAUSNARKETA

🤔 Zein eredu da estrategikoki bideragarriena?

🤔 Zein dira zuen ikastetxean digitalizazioan hartutako erabakiak?

🤔 Nola kudeatu daiteke menpekotasuna teknologikoa minimizatuz?

DIGITALIZAZIOA

EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA · DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Fp EUSKADI LANBIDE HEZIKETA

Eusko Jaurlaritzaren Lanbide Heziketako Sailburuordetza. Lan honek Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioarteko Baimena dauka (CC BY-NC-SA 4.0).